

# eskolak euskaldundu

## SINADURA BILKETA ERRALDOIA

Irakaskuntzan orain arte indarrean egon diren hizkuntza politikak agorturik daude eta euskalduntzea bermatuko duen hizkuntza politika berria nahitaezkoa da. Ideia horren inguruan indarrak biltzeko asmoz, “Eskolak Euskaldundu” ekimenean gauden eragileok ekimen berri bat sustatu nahi dugu ikasturte honetan, orain arteko kanpainen ildoan baina horiek baino harago helduko dena.

### 1. EGOERAREN AZTERKETA

Gaur egungo hizkuntza politiken eraginez, euskal ikasleen hizkuntza eskubideak urratzen dira. Urraketa hau, nagusiki, bi modutan ematen da: alde batetik, ikasleen gehiengo zabalari euskara ezagutzeko eskubidea ukatzen zaio, Euskal Herri osoan; eta horrekin batera, Euskal Herriko hainbat eremutan (bereziki, baina ez bakarrik, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian) euskaraz ikasteko aukera bera da ukatzen zaiena.

#### Hiru ikasletik bi ez da euskaldunduko

Hona hemen euskal ikasleriaren “hizkuntza-argazkia”<sup>1</sup>:

- 89.666** euskal ikaslek klase guztiak gazteleraz edo frantsesez jasotzen ditu, euskarazko irakasgairik gabe (**ikasleriaren %20,7**)
- 106.269** euskal ikaslek klase guztiak gazteleraz edo frantsesez jasotzeaz gain, *Euskara* irakasgaia ematen dute, lau ordu asteen (**ikasleriaren %24,6**)
- 72.419** euskal ikaslek hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu, (**ikasleriaren %16,7**)
- 164.375** euskal ikaslek klase guztiak euskaraz jasotzen ditu, eta *Gaztelera* edo *Frantsesa* irakasgaia ematen du asteen lau orduz (**ikasleriaren %38**)

Ikasle hauetatik, zenbatak amaituko dituzte ikasketak euskara behar bezala menperatuz? Erantzuna ezberdina izango da “euskara behar bezala menperatzea” kontzeptuaz egiten dugun definizioaren arabera. Guk EAE-ko Hezkuntza Sailak 2.005ean euskara maila neurtzeko eginiko froga hartuko dugu oinarritzat, nahiz eta froga hori gainditzeak ez duen derrigorrez suposatzen “ezagutza behar bezala menperatzen” denik. Edozein kasutan ere, kontua da A ereduko ikasle guztiek, B ereduko ikasleetatik %67ak eta D ereduko ikasleetatik %32ak ez zutela froga hori gainditu.


	Ikasle kopurua	Froga gaindituko ez luketenak	Euskaldunduko ez den ikasle kopurua
<b>G eredia</b>	89.666	%100	89.666
<b>A eredia</b>	106.269	%100 <sup>2</sup>	106.269
<b>B eredia</b>	72.419	%67	48.520
<b>D eredia</b>	164.375	%32	52.600
<b>OSOTARA</b>	<b>432.729</b>	<b>%68,2</b>	<b>297.055</b>

<sup>1</sup> Aztiker: “Hizkuntza ereduak Euskal Herrian. Datu bilketa”, 2.004.

<sup>2</sup> Froga EAEn soilik egin zen eta ez zitzaien G ereduko ikasleei egin. Hala ere, logikoa da pentsatzea emaitzak A eredukoaren parekoak edo okerragoak izango lirakeela.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu eskola amaitu ostean gazte askok euskara maila galtzen dutela, eguneroko bizitza nagusiki erdaraz egiten dutelako. Beraz, eskolak euskalduntzen duen populazioaren portzentaia hori ez da bere horretan mantentzen denboran zehar eta hori ere kontutan hartzekoa da.

Ondorioz, honako hau da egungo argazki gordina:



Ondorio nagusia: eskolak egun ez du euskalduntzen eta milaka dira euskara ezagutu gabe irtengo diren haur eta gazteak. Egoera honek euskararen normalizazioa guztiz tratatzen du eta gure hizkuntzaren geroa bera ere zalantzan jartzen du.

### **Euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da hainbat eremutan**

Euskal Herriko hainbat eremutan euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da. Hau da, kontua ez da soilik eskualde horietako hainbat eta hainbat ikasle ez direla euskalduntzen, baizik eta horretaz gain euskaraz ikasteko mugak jartzen dituela administrazioak, eraso argiak bideratuz.

Nafarroako Gobernuaren jarrera eta jokabidea dugu horren erakusgarri. Azken urteotan ugariak izan dira euskal irakaskuntzaren kontra hartutako neurriak: Iruñerriko eskola publiko euskaldunak baliabiderik gabe uztea, lanbide heziketan eta unibertsitatean euskararen sarbidea eragozteak, haur hezkuntza erdalduna bultzatzea, Vascuenceren Legeak ezarritako zonifikazioa betikitzea, ikastola “alegalak” ekonomikoki itotzen saiatzea...

Bestalde, Frantziako Gobernuak ere euskal irakaskuntza erasotzeko politika bera jarraitzen du. Sare publiko elebidunean, pribatu elebidunean nahiz ikastoletan, toki guztietan nabariak dira politika horren ondorio kaltegarriak.

## **2. ALDAKETAREN BEHARRA, ALDAKETARAKO AUKERAK**

Era ezberdinean bada ere, orain arteko hizkuntza politika aldatzeko beharra nabaria da Euskal Herria banatua dagoen hiru esparru administratiboetan:

- Nafarroa Garaian, euskarazko irakaskuntzaren aurkako oztopoak eta mugak kentzeko etengabeko mobilizazioak burutzen dihardute hainbat eragilek. Ikasturte berri honen hasieran, Iruñerriko zenbait eskola publikoren (Patxi Larraintzar, Antsoain e.a.) eta hegoaldeko ikastolen auzia pil-pilean daude.

- Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan, hizkuntza politika berri bat aldarrikatzeko plataforma bateratua eratu zen pasa den ikasturtean, sare publiko zein pribatuko eskola elebidunek zein Seaskak osatua.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, hezkuntza sailak hizkuntza ereduaren politikaren porrota aitortu egin zuen publikoki, Iztuetaren agintaldiaren amaieran. Aldaketa bat egongo dela gauza nahiko ziurra dirudi. Kontua da ea noraino iritsiko den balizko aldaketa hori. Jadanik aldaketa horren inguruko mezuak entzuten gabiltza alderdi politiko eta agintari ezberdinen eskutik.

Ondorio nagusia: Oro har Euskal Herrian bistakoa da egungo errealitatetik belaunaldi berrien euskalduntzea erdiestea ezinezkoa dela eta honen aurrean, euskalduntzearen alde eragileen artean mugimenduak gertatzen ari direla eta eztabaida maila garrantzitsua hartzen ari dela. Osoko euskalduntzearen aldeko aldaketa baten premia indarra hartzen ari den errealitatea dugu.

### 3. SINADURA BILKETA ERRALDOIA

---

Azaldutako egoerak, indarrak biltzea eta aktibatzea eskatzen du. Hau honela, hezkuntza eta euskalgintzako eragileak bilduko dituen ekimen zabala antolatzea eta era berean, eskolak euskalduntzearen aldeko eskaera soziala pizteko edo indartzeko proposamena luzatzen dugu. Izan ere, eragileon eskaeratik haratago, herritarren eskaera bideratzeko unean gaudela nabarmendu nahi genuke.

Aipatu xede hauek erdiesteko, **Sinadura Bilketa Erraldoia** egitea proposatzen dugu. Ekimenaren bitartez, hizkuntza politika berri baten aldeko beharra lau haizetara zabalduko genuke eta bestalde, Euskal Herrian hezkuntza eskumenak dituzten instituzioetara eskakizuna bideratzea bilatuko genuke.

Une honetan hezkuntza eta euskalgintzako eragile ezberdinekin harremanetan ari gara kanpainaren babes zabala lortzeko asmoz. Abendua eta urtarrilean kanpainaren aldeko indar gorpuztea osatuko litzateke eta urtarrila bukaera aldera kanpaina bera aurkeztuko genuke publikoki guztiok.

Eskualdez eskualde hezkuntza eta euskalgintzako eragileekin batzarrak egin eta kanpaina bera gauzatzeari ekingo genioke garai honetan. Honela, **otsailetik maiatzera** burutuko litzateke aipatu kanpaina eta bilketa masiboa egingo genuke.

Kanpainaren amaiera aldera, herriz herriko ikastetxe ataritan ekimen bateratua egitea proposatzen dugu eta honekin batera, sinadura bilketaren emaitzaren berri emateko ekitaldi bat egingo genuke.

*Kanpainaren babesleak:*

Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Oinarriak, Euskara Elkartearen Topagunea, AEK, IKA, Euskal Herrian Euskaraz, UEU, Euskal Irratiak, Ikas, Sortzen Ikasbatuaz, Lab, Euskal Herriak Bere Eskola, Ikasle Abertzaleak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Hiru Sareta